

LEIZARRAGAREN ZENBAIT IZEN SINTAGMA

Donostia, 1983-I-28

Patxi Altuna

Euskal gramatikaz arduratzen garen guztiok maiztxo aritu ohi gara geure artean eztabaidan, honako edo halako esakera ongi esana dagoen ala ez edota gaztelerazko esaldi hau edo hura euskaraz nola esan behar den. Baina eztabaidan eta ikamika geure eritziaren arabera. Ez noski eritzi hutsal eta oinarririk gabekoaren, baizik haurretandik ikasi genuen euskararen senak eta hor edo han entzun eta ikasi ditugun esaerenak irakasten edo idarokitzen digunaren arabera. Horri gehiegixko loturik, ordea, beste euskalkietako lagunek eta batez ere geure eta beste euskalkietako idazle zaharrek halakorik esan zuten ala ez edota dudazko zaiguna nola esan zuten ikasten neke gehiegi hartu gabe. Premierik handieneko eginbeharra dugu, nik uste, autore zaharren liburu guztiak larrutzea eta hustutzea —eta ez noski hiztegiaren aldetik bakarrik—, morfosintaxizko zalantza puntu horiek finkatu eta erabaki nahi baldin baditugu.

Esakera zailtxo horietako bat dela uste dut beste gehiagoren artean izen zenbakaitzez kantitatea euskaraz adierazi behar dugunekoa. Nola esan euskaraz, esate baterako, “un bocadillo de tortilla de jamón caliente” edo “una botella de vino añejo y costoso” edo “una mixtura de casi cinco litros de vino y vinagre” edo “una taza de café solo caliente”? Izan ere *ardo botila* edo *ur boltsa* guztiok esaten dugu mila bider eta guztiok ontzat emango genuke hori dudarik gabe; baina hitz konposatu diren izen sintagma horietako lehen hitzak har al dezake bere ondoan adjetiboa eta esan *ardo gorri botila* edo *ur bero boltsa*? Gure arteko zenbait gramatikalari gazte bezain trebek, zuek eta nik oso ixtimatu ditugunek, duda larriak dituzte, gaurko Linguistikaren ikuspegiz gauzak ikerturik, sintagma horien jatorriasunaz eta horiezaz elkarrekin mintzatu garenoro txartzat ematera makurtu izan dira.

Gramatika batzordea, dakizuen bezala, perpaus bakunaz txostena presatzen ari da, Kanpion jaunak bere *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* argitara zuenetik datorren urtean ehun urte bete-tzen direla eta, Euskaltzaindiak antolatutako gogo duen biltzarrerako. Hor beste hamaikatxo punturen artean bat izen zenbakaitzezeko kantitatearena eta arestian aipatu dudana izen konposatuena denez gero, Leizarragaren Testamentu Berria osorik ikertu dut ea horri buruz ezer jakingarririk zekarren ala ez.

Ebanjelioan, izan ere, honelako esaldiak ageri dira, dakizuenez: “el que diere un vaso de agua fresca tan sólo”, “llevando un frasco de alabastro de nardo puro costoso”, “más de doce legiones de ángeles” eta abar. Leizarragak nola euskaratu zituen ikasteak argitasun pixka bat eman ziezakedala pentsatu nuen. Hona han bildu ditudan perpaus polit eta bitxi batzuen sorta.

Diodan oinarri gisa, guztiok nik baino hobeki dakizuen arren, gaztelezako eta hizkuntza gehiagotako, baita latinezko ere, esan moldeak biziki arriskugarri direla puntu honetan euskaraz adierazi nahi ditugunean. “Una botella de vino”, alegia, ez da euskaraz beti modu berean esaten. Inork hori eskatzean *botila bera* nahi baldin badu, nahiz eta hutsa, hartan, esate baterako, tomate zukua sartu edo gorde nahi duelako, orduan euskaraz *ardo botila bat* eskatu behar du. Ostera, botila bera ez, baizik botilak hartzen duen adina *ardo* nahi badu edateko, orduan *botila bat ardo* eskatu edo esan behar du dudarik gabe eta hari bost axola zaio botilan eman beharrean, dendariak pitarrean edo txarroan ematen badio. Lehen kasuan *ardo botila* hitz konposatua litzateke; bigarreanean, aldiz, izen zenbakaitzezko kantitate perpausa genuke aurrean. Batari eta besteari dagozkion galderak ere ez dira euskaraz berdinak; lehen kasuan *nolako botila?* galdetu behar lioke bezeroari ongi entzun ez duen dendari gorra; bigarreanean, aldiz, *zenbat ardo?*

Hori horrela delarik, ikus ditzagun lehenik Leizarragak dakartzan lehen erako perpaus batzuk. *Errota harri bat* (Mk. IX, 42; Lk. XVII,2); *guiçon aralde bat* (Akt. V,36). Konposizio hori hiru hitzetakoa ere izan daiteke: hala nola *asto errota harri bat* (Mt. XVIII,6) edota *mustarda haci bihi bat* (Mk. IV,31). Izen konposatu horrek —bizpahiru hitz horiek izen konposatu bakarra osatzen bait dute gaurko Linguistikaren irakatsien arabera— har dezake noski hura kalifikatzen duen adjetiborik; esate baterako, *oihal pedaçu latz bat* (Mt. IX,16) edota *errota harri handi bat* (Apok. XVIII,21). Bi enxplu horietan bigarren izenak, hobeki esan, izen konposatu osoak hartu du adjetiboa eta hori egunoroko hizkeran ere gauza arrunta dela ez luke inork ukatuko. Zenbait gramatikalarik, ordea, gorago esan dudanez, ukatu egiten du edo oso dudan jartzen gutxienez, gaurko Linguistikari jarraituz, bi osagaietatik lehenari ere adjetiboa gehi dakiokela, izen konposatua definitzerakoan eman ohi den kriterioetatik bat hori omen delako, eta ez euskaraz bakarrik noski, eta hainbestez *ur bero botila* bezalako sintagmak ez oso jatortzat jotzen. Ikus halere Leizarragaren honako hau: *arrain erre çathi bat* (Lk. XXIV, 42). Hor *erre* adjetiboa baino gehiago partizipioa dela esan dezake norbaitek eta horrelakoak geurok ere maiz esaten ditugula; hala nola *ur bedeinkatu ontzia*. Entzun, ordea, besteok: *liho fin crespá* (azken Hiztegian, ikus *cetá*); eta are harri-garriago dirudien beste hau: *armada celestial multzo bat* (Lk. II, 13).

Izen konposatuaren bi hitzek batera ere har dezakete adjetiboa Leizarragarengan: ikus *membro eyhardun mulço handia* (Io. V, 3). Enxplu hau ez da halere guztiz fidagarria, egia; hor lehen izena ez da, izan ere, *membro* soilik, baizik *membro eyhardun* osorik (“multitudo magna... aridorum” dio Vulgatak; hots, *aridi* = *membro eyhardun* edo *elbarri*; ez *arida membra*).

Lehen izenak kasu mugagabeen agertu ordez har dezake ere noski *-zko* atzizkia; hala nola, *Legionea cen gendarmesezco banda bat* (ikus *Legionea* azken Hiztegian), *gendarmes banda bat* esan beharrean lehen aipaturiko konposatuen arabera. Eta beste hau ere bai: *myrrhazco eta aloesezco quasi ehun liberataco mixtione bat* (Io. XIX, 39).

Bigarren kasua, izen zenbakaitzezko kantitatearena alegia, zailagoa eta nahasiagoa da euskaraz ematen. Gogora itzazu hasieran aipatu ditudan gaztelarazko esaldi haiek: “un bocadillo de tortilla de jamón caliente”, “una taza de café solo caliente” eta abar. Zailago eta nahasiago dela esan dut, baina ez da hori kontua, egunoro esaten bait ditugu nola edo hala. Kontua hau da: esan al daitezke *katilu bat kafe* moldearen bidez eta kopulatiba gisa adjetiboak elkarri *eta*-ren bidez lotu gabe, izen determinatuari zuzenean adjetiboak erantsirik?

Hona hasteko Leizarragaren esanplu soil batzuk: *beire bat ur* (Mk. IX, 41); *pegar bat ur* (Mk. XIV, 13; Lk. XXII, 10); *boeita bat unguentu* (Lk. VII, 37); *ehun barril olio* (Lk. XVI, 6); *ehun neurri ogui* (Lk. XVI, 7); *hirur chenica garagar* (Apok. VI, 6); *hirur neurri irinetan* (Lk. XIII, 21); *hirur neurri irinen barnean* (Mt. XIII, 33).

Hemen ere kuantifikatua gelditzen den bigarren izena izan daiteke, noski, hitz konposatua; hala nola *chenica bat ogui bihi* (Apok. VI, 6). Baina askoz diskutigarriago dena eta batzuek ukatu edo dudan jartzen dutena: har al dezake bigarren izen horrek adjetiborik? Esan al daiteke, alegia, *katilu bat kafe huts bero*? Leizarragak garbiro erakusten digu baietz. Hona nola dioen latinezko “calicem aquae frigidae tantum” delako hura: *beire bat ur hotz huts* (Mt. X, 42).

Beste adibidea: nola esaten da, nola esan behar da euskaraz, “ha bebido más de cinco litros de vino”? Gaur kalean honako hauek entzuten dira: *bost litro ardo baino gehiago edan du*. Utz dezagun alde batera horrek besterik ere esan nahi izan dezakeela: hanbat ardoz gain txanpaina ere edo whisky edo beste zernahi edari edan duela. Beste honako hau ere entzun dut: *bost litro baino ardo gehiago*. Leizarragak nola lioke? Honek konparaziozko perpaus txiki hori (*baino gehiago*) erdian txertatuko lioke izen zenbakaitzezko kantitate perpaus soilari eta determinatua gelditzen den izena azkenean ezarriko. Honela esango luke, alegia, horko hori: *bost litro baino gehiago ardo*. Entzun hark dakarrena: *hamabi legione baino guehigo aingueru* (Mt. XXVI, 53).

Jakingarria dela uste dut honi buruz agerian jartzea Duvoisinek ez Olabidek ez Orixe-Kerexeta-Zuastik ez Kerexetak ez Liturjia itzultzaile taldeak ez dutela pasarte hori Leizarragak bezala itzuli, baizik bostek egungo egunean kalean entzuten dela esan dizuedan bi modu hauetako batean: *hamabi aingueru aralde baino gehiago* (Duv.); *amabi aingueru talde baño geyago* (Olab.); Olabidek bezalaxe Orixek eta Kerexetak, eta azkenik *hamabi aingueru talde eta gehiago* (Liturjia itzultzaileek).

Are jakingarriago da, ordea, laurogei urte baino gehiagoko bi amonek, nork bere aldetik eta bereiz noski, nola euskaratu zidaten lehengo batean hitzetik hortzera gaztelerazko esaldi hau: “bebió más de cinco litros de vino”. Lehen saioan biek ardorik aipatu gabe, honela: *edan zituen... bost litro baino gehiago*. Baina zer edan zuen, ardoa ala ura, esan gabe utzi zutela aditzera eman nienean, segundu batzuk isilik egon eta biek Leizarragak bezalaxe bota zidaten: *bost litro baino gehiago ardo*.

Horrelako perpausak nahasiago bilakatzen dira, jakina, izen determinatuak berekin izenlagun bat edo bi edo hiru hartu behar dituzenean. *Litro bat ardo prezio handitako* ala *litro bat prezio handitako ardo* esan behar da, aurreko hartan konparaziozko perpausa bezala hemen izenlaguna artean txertatzen dugularik? Leizarragak, jakina, gure *harrizko sei kuba*-ren ordez *sey kuba harrizcoric* (Io. II, 6), adjetiboa atzean eta partitiboan, esateko ohitura duenez gero, *litro bat ardo prezio handitakorik* esango luke eta hala dio ere horren antzeko hau: *boeyta bat unguentu prezio handitacoric* (Mt. XXVI, 7) (“alabastrum unguenti pretiosi”); baina ez dirudi gure esateko erara beste hau, *litro bat prezio handitako ardo*, gaizki legokeenik.

Eta horri berorri oraindik beste adjetibo bat erantsi nahi badio? Esate baterako, Ioanek (XII, 3) dakarren “libram unguenti nardi pistici pretiosi” delako hura, lehengo perpausari “nardi pistici” gehituz. Honela dakar Leizarragak: *libera bat unguentu* (honaino lehenaren gisara) *aspic finez* (hau da berria) *prezio handitacoric*. Hor sartu duen *aspic finez* hori gogor samarra egiten zaigu; agian ondoko adjetiboak ere *-ko* atzizkia duelako (handitaco-) esan du *finezco* gabe *finez* soilik.

Badirudi hala dela; perpaus hori bera edo horren arras antzekoa, izan ere, Markosen Ebanjelioan (XIV, 3) bestela eman digu. Vulgatak honela dio Markosena: “alabastrum unguenti nardi spicati pretiosi”. Eta Leizarragak honela itzuli: *aspic garbizco* (ez *aspic garbiz*, lehen *finez* bezala) *unguentu prezio handitaco boeita bat*.

Honen eta aurrekoaren arteko bereizkuntza ez da, halere, *garbizco* eta *finez* horien artekoa bakarra. Hori baino larriagoa da beste honako hau: han *libera bat unguentu* osorik eta printzatu gabe eman digu; hemen, aldiz, perpaus luze horri inguruko izen-lagunak ken badiezazkiogu, *unguentu boeita bat* gelditzen zaigu, ez *boeita bat unguentu*. Bestela esan, *ardo botila bat* dugu hemen azpi egituran eta ez *botila bat ardo*, han bezala. Haren arabera hau esan beharko zukeen: *boeita bat unguentu aspic garbiz prezio handitacoric*. Edota hemen bi *-ko* agertzeak bortxatu badu hitzen ordena aldatzera, gutxienez esan beharko zukeen: *aspic garbizco boeita bat unguentu prezio handitacoric*, gorago Mateorenean (XXVI, 7) *aspic garbizco* hori gabe *boeyta bat unguentu prezio handitacoric* esan digun bezala.

Zergatik, ordea, batean *libera bat unguentu* eta bestean *unguentu boeita bat*? Lehenak izen zenbakaitzezko kantitatea adierazten duelako (“libram

unguenti” *zenbat unguentu?*); bestea, oster, izen konposatu soila delako (“alabastrum unguenti” *nolako boeita?*). Baina ez dago batere garbi bigarren honetan, Markosenean, zergatik eman digun “alabastrum unguenti...” izen konposatu gisa, kantitatea adierazten ez balu bezala, eta Mateorenean latinezko hitz berak kantitatezko perpaus bezala (*boeyta bat unguentu*). Guk ere “Quandoque bonus...” aitortu behar ote dugu?

Bai ote? Ohar gaitezen Markosenean eta Joanenean, Mateorenean ez bezala, bi izen sintagma ditugula batera: izen konposatuarena eta izen zenbaitzeko kantitatezkoarena; batetik “unguentum nardi...”, izen konposatua, eta bestetik “alabastrum unguenti”, kantitatezkoa (ikus Mateorena). Biotatik lehen hemen, Markosenean, gorago aipatu ditugun... *gendarmesezco banda bat* eta *myrrhazco...* *mixtione bat* haiek bezala -zko atzizkiak eman digu, eta ez beste *liho fin crespá* haren arabera era honetan: *aspic garbi unguentu*. Horrenbestez Markosenaren itzulpen horren lehen zatia, *aspic garbizco unguentu precio handitaco*, inolako esankizunik gabeko izen sintagma jator eta zuzena da alde guztietatik eta aldi berean hitz andana bakar eta osoa. Horren gunea, beraz, *unguentu* da, aitzin-gibelean izenlagun bana duelarik. Izan ere, latinak ez gerkerak argitzen ez badigute ere gramatika bidez zein den prezio handitako, gantzua ala aspika —bi izenok gerkeraz, ez latinez, jenero desberdinetako izanik ere, “prezio handitako” esan nahi duten adjetiboen jenitiboak hiru jeneroetan berdinak bait dira, *polytímu* eta *polytelús*—, halaz ere zentzuari osoro zor zaio gantzua izan dadin balio handitakoa, ez aspika.

Izen konposatuaren orde z dagoen izen sintagma oso horri gero, ordea, beste determinazioa, hots *zenbat* “aspic garbizco unguentu precio handitaco”, erantsi behar zion Leizarragak, *boeita bat* alegia. Non ezar, ordea, izen sintagma berri hau? aurrean ala atzean? Atzean ezarri du. Aurrean ezarririk *botila bat ardo* eskema gordeko zukeen, Joanenean bezala, hartara kantitatezko izen sintagmari lehentasuna emanik; hots, *boeita bat aspic garbizco unguentu precio handitacoric*, esango zukeen. Eman digun eran, atzean ezarririk, aldiz, izen konposatuari eman dio lehentasuna, kantitatezkoaren ordena urratuz, Joanenean eta Mateorenean ez bezala. Zergatik? Ez dakit.

Beste puntu bat ere, aposizioari dagokiona, nahi nuke orain laburkiro ukitu. Nola esan behar da euskaraz gaztelerazko “se fue con su amiga Isabel”? Gazteleraz bestela ere esan daitekeela ez ahantz: “se fue con Isabel su amiga”. Euskaraz nola? *Isabel bere lagunarekin joan zen?* Gaizki ulertzeko arrisku nabarmena du horrek, bai bait dirudi *Isabel* joan zela bere lagunarekin. Egia da hitz andanak ez direla bata eta bestea esan nahi denean berdinak: [Isabel bere lagun-] izango litzateke batean eta [Isabel] [bere lagun-] bestean; baina, jakina, hori gehienez ere mintzatzerakoan eman daiteke aditzera, *Isabel*-en ondoan geldiuenerik egin gabe edota eginik. Baina irakurtzerakoan adieraren jabe izan behar da lehenik, geldiuenea egin behar den ala ez jakiteko.

Bere lagun Isabelekin joan zen esanez gero, berriz, gaizki ulertzeko arrisku hura erabat txuliatzen da, egia. Ez ordea beti; ez, alegia, *lagun* izan beharrean, -a itsatsia duen *anaia* edo *ahizpa* edo besterik baldin bada.

Nola erabiltzen du Leizarragak aposizioa, izen nagusiaren aurrean ala ondoan ipinirik? Bietara eta exenplu piloa dugu. Hona bakar batzuk: *Dauid reguea* (Mt. I, 6); *Israel ene populua* (Mt. II, 6); *Herodes Iudeaco regueren egunetan* (Lk. I, 5); *Elisabeth eure emaztea* (Lk. I, 13); *Elisabeth hire lehen gussua* (Lk. I, 36); *Maria haren ama* (Mt. I, 18).

Baina atzekoz aurrerakoak ez dira gutxiago: *bere senhar Ioseph* (Mt. I, 19); *regue Herodesen denboran* (Mt. II, 1); *bere ama Mariarequin* (Mt. II, 11); *bere aita Herodesen lekuan* (Mt. II, 22); *haren emazte Elisabeth* (Lk. I, 24); *bere aita Dauid-en thronoa* (Lk. I, 32).

Ordena bat azala besteaz baliatu deklinabideko kasuaren baitan ote dago? Lehen sailekoak, nik bakar batzuk baizik bildu ez ditudan arren, nominatiboan daude guztiak, bat izan ezik: *Herodes Iudeaco regueren egunetan*, eta honek bigarren sailekoen arabera *Iudeaco regue Herodesen egunetan* beharko zukeen. Aitzitik bigarren saileko guztietatik, hor aipatu ditudan gutxi horietatik noski, bat ere ez dago nominatiboan. Puntu hau halere bestek aztertu beharko luke edo neronek beste batean.

* * *

Txostenean barrena agertu diren izen sintagmak Leizarragak ez ezik geroko beste Biblia itzultzaileek ere nola itzuli dituzten jakinerazitzeari intergarri deritzat, irakurleak elkarrekin erkatzeko parada eroso izan dezan; hemen ipiniko ditut osagarri gisa, beraz, itzultzaile batzuek, ez guztiek, eman dizkiguten izen sintagma horietako batzuen, ez guztien, itzulpenak. Autore hauek aukeratu ditut: Duvoisin, Olabide, Orixe, Kerexeta eta Liturgia itzultzaile taldea Iparraldekoa bai Hegoaldekoa eta Olariaga. Bi gauza nabari dira gehiagoren artean: 1) izen sintagmak zenbat soilago, hanbat bateratsuago eginak itzulpenak; 2) izen sintagmak adjetiboz nahiz izenlagunez horniturik daudenean, Leizarragak alde handia kentzen die gainerako guztiei aipatu ditugun bi molde (*botila bat ardo / ardo botila bat*) haiei ahalik zintzokiaria atxikitzen. Hona horien itzulpenak:

mola asinaria (Mt. XVIII, 6): asto errota harri bat (Leiz.); ihara harri bat (Duv.); asto igararria (Olab.); asto errotarria (Orixe); astoak darabillen orretariko errota-arri bat (Kerex.); errotarri bat (Lit. taldea); eihara harri bat (Belloc); errot arri bat (Olar.)

granum sinapis (Mk. IV, 31): mustarda haci bihi bat (Leiz.); mustarda bihia (Duv.); yeben-azia (Olab.); ziape-azia (Kerex.); mostaza-hazia (Lit. taldea); mustarda hazia (Belloc); ziape azia (Olar.)

commissuram panni rudis (Mt. IX, 16): oihal pedaçu latz bat (Leiz.); oihal berrizko pedachuric (Duv.); oyal zailezko zatalik (Olab.); oial gogorrezko ipingirik (Kerex.); oihal gordinezko adabakirik (Lit. taldea); oihal gordinezko petaxurik (Belloc); adabaki jo gaberik (Olar.)

partem piscis assi (Lk. XXIV, 42): arrain erre çathi bat (Leiz.); arrainki errea (Duv.); arraiki erre (Olab.); arraiki errea (Orixe); arrain erre zati bat (Kerex.); arrai-erre puska bat (Lit. taldea); arrain erre poxi bat (Belloc); arrai erre puska bat (Olar.)

multitudo militiae coelestis (Lk. II, 13): armada celestial multzo bat (Leiz.); zeruko armadako aralde handi batzu (Duv.); zerutar-talde aundi bat (Olab.); zerutar saldo aundi bat (Orixe); zeruko talde aundi bat (Kerex.); zerutar talde bat (Lit. taldea); zerutiar andana handi bat (Belloc); zeruko gudatalde aundi bat (Olar.)

mixturam myrrhae et aloes quasi libras centum (Io. XIX, 39): myrrhazco eta aloesezco quasi ehun liberataco mixtione bat (Leiz.); mirra aloesarekin baltsaturik ehun liberaren heina (Duv.); eunen bat libra mirra ta lerdamin (Olab.); eun bat libera mirra ta lerdamin (Orixe); mirraz eta lerdamiñaz egindako eunen bat librako naaste bat (Kerex.); mirraz eta aloezco iphaste batetik ehun bat libra (Lit. taldea); mirra belar mintzarekin nahasirik ehun bat liberaren heina (Belloc); ehun librako edo mirra lerdamin nahasi bat (Olar.)

calicem aquae (Mk. IX, 41): beire bat ur (Leiz.); baso bat ur (Duv) antuxin bat ur (Olab.); edontzitxo bat ur (Kerex.); baso bat ur (Lit. taldea); baso bat ur (Belloc); baso bakar ur (Olar.)

lagenam aquae (Mk. XIV, 13): pegar bat ur (Leiz.), pegar bat ur (Duv.); lusuila (Olab.); lur-suilla (Orixe); edarra bete ur (Kerex.); ur-suila (Lit. taldea); pegar bat ur (Belloc); lusuil bat ur (Olar.)

alabastrum unguenti (Lk. VII, 37): boeita bat unguentu (Leiz.); albatrazko untzi bat gantzugailuz bethea (Duv.); ontzian gantzurrin (Olab.); ontzian gantzurriñ bat (Orixe); usaingarriz beteriko artzuri ontzi bat (Kerex.); gantzu usaigozodunez betetako ontzi eder bat (Lit. taldea); untzi bat usain on (Belloc); arzurizko eltzetxo bat uringozo (Olar.)

centum cados olei (Lk. XVI, 6): ehun barril olio (Leiz.); ehun hordi olio (Duv.); eun arratz olio (Olab.); eun arratz olio (Orixe); eun negurri olio (Kerex.); ehun upel olio (Lit. taldea); ehun untzi olio (Belloc); ehun barrika olio (Olar.)

in farinae satis tribus (Mt. XIII, 33): hirur neurri irinen barnean (Leiz.); hirur sato irinetan (Duv.); iru lakari irintan (Olab.); iru negurri urunetan (Kerex.); iru lakari irinetan (Lit. taldea); iru gaitzuru irinen barnean (Belloc); iru arrobako zaku-irin barruan (Olar.)

calicem aquae frigidae tantum (Mt. X, 42); beire bat ur hotz huts (Leiz.); ur hotz chorta bat bakharrik (Duv.); antuxin bat ur otz (Olab.); pota bat ur ere (Orixe); txolet bete ur otz besterik ezean (Kerex.); baso bat ur hotz (Lit. taldea); baso bakar bat ur hotz (Belloc); baso bat ur otz, besterik ez bada ere (Olar.)

plus quam duodecim legiones angelorum (Mt. XXVI, 53); hamabi legione baino guehiago Aingeru (Leiz.); hamabi aingeru aralde baino gehiago (Duv.); amabi aingeru talde baño geyago (Olab.); amabi aingeru-talde baño geiago (Orixe); amabi aingeru talde baño geiago (Kerex.); hamabi aingeru talde eta gehiago (Lit. taldea); hamabi aingeru-talde baino gehiago (Belloc); amabi aingeru legio baino gehiago (Olar.)

alabastrum unguenti pretiosi (Mt. XXVI, 7): boeyta bat unguentu precio handitacoric (Leiz.); albatrazko untzi bat (eskuan) balio handitako gantzugailu batez bethea (Duv.); gantzuki ederra (Olab.); gantzuki ederra ontzian (Orixe); artzuriontzi baten usaingarri oso balioetsua (Kerex.); ontzi eder batetan gantzu usaigozodun balioetsua (Lit. taldea); harri xurizko untzi baten bete usain on balios bat (Belloc); arzurizko ontzi bat usain gozo eder ederra (Olar.)

libram unguenti nardi pistici pretiosi (Io. XII, 3): libera bat unguentu aspic finez precio handitacoric (Leiz.); nardo hoberenetikako gantzugailu balios batetik libera bat (Duv.); libera bat akaruriñik bikañen (Olab.); libera bat akar-urin bikaiñenetik (Orixe); libra bat akara usaingarri jator eta onenatarikoa (Kerex.); libra bat nardo jatorrezko gantzu usaigozoduna balio haundikoa (Lit. taldea); libera bat usain on garbi garbia eta balio handikoa (Belloc); libra bat akara urin eder on-ona (Olar.)

alabastrum unguenti nardi spicati pretiosi (Mk. XIV, 3): aspic garbizko unguentu precio handitaco boeyta bat (Leiz.); albatrazko untzi bat (zakharla) nardo buruzko gantzugailu balios batez bethea (Duv.); akarurin uts ta bikaiña ontzian (Olab.); akar-urin garbi ta bikaiña ontzian (Orixe); artzuri-ontzi baten balio aundiko akara-usaingarri onenatarikoa (Kerex.); ontzi eder batetan nardo jatorrezko gantzu usaigozodun balioetsua (Lit. taldea); harri xurizko untzi batean nardo garbiz egin usain on bat (Belloc); arzurizko eltzetxo bat akara urin garbi ederrederra (Olar.).